

II.ERANSKINA

LAGUNTZEN AGINDU HONEN ONDOREETARAKO TURISMO AKTIBOTZAT HARTZEN DIREN JARDUERAK

1.– URETAKO JARDUERAK

1) Bela-nabigazioa:

- Bela arina: nabigazio mota honetan, haizeak oihal-gainazal baten gainean sortzen duen eragina propulzio-indar gisa aprobetxatzen da; kabinarik gabeko eta eskifaiarena baino pisu txikiagoa duten ontziak erabiltzen dira.
- Gurutzaldi-bela: nabigazio mota honetan, haizeak oihal-gainazal baten gainean sortzen duen eragina propulzio-indar gisa aprobetxatzen da, eta eskifaiarena baino pisu handiagoa duten ontziak erabiltzen dira; ontziok gaua igarotzeko kabina izaten dute.

2) Windsurfa: belaren eta surfaren arteko hibridoa. Helburua da uraren azaleraren gainean irrist egitea ontzi arin baten gainean. Ontzia ohol batez eta haizearen indarra jasotzen duen bela batez osatzen da.

3) Surfa: kirol honen helburua olatuen gainean irristatzea da, diseinu hidrodinamikoko ohol baten gainean zutik jarrita.

4) Ibilbideak motordun itsasontzietan: itsasontzietan ibilbideak egitea, ibaietan edo kostaldean zehar.

5) Piraguismoa: modalitateak:

- Kayaka: piragua mota bat da; goiko aldea itxita dauka, eta pilotua sartzeko tarte bat baino ez du. Pilotuak bi pala asimetriko dituen arraun batekin gidatzen du kayaka.
- Kanoa: ontzi txiki eta arina; nabigatzaileak pala bakarreko arrauna erabiltzen du aurrera joateko.
- Arraunketa eta traineruak: ontzi batek uraren gainean hartzen duen propulzioa arraunlari baten edo batzuen indar muskularraren bidez. Arraunlari bakoitzak arraun bat edo bi erabiliko ditu, bigarren mailako palanka sinple gisa, eta aitzinamenduaren norabideari bizkarra emanda eseriko dira, gidatuko dituen lemazainarekin edo gabe.

6) Raftinga: emari handiko ibaietatik jaistea, hainbat pertsonarentzako ahalmena duten baltsa pneumatikoen barruan, eta arraunez propulsatuta. Ontzia zuzentzeko, tripulatzaile guztien arraunek koordinatuta ekin behar dute.

7) Bodyboarda: uretatik irrist egitea, apar gogorrezko ohol baten gainean ahuspez etzanda, eta hegatsen laguntzaz.

8) Wakeboarda edo uretako eskia: uraren gainazalean irrist egitea ohol edo eski baten gainean tente jarrita eta motordun ontzi batek herrestan eramanda.

9) Hidropedalak: jarduera hau pedalen bidez mugitzen diren hegalez propulsatutako ontzi txiki batean egiten da.

10) Donutskia: helburua da erroskilla pneumatiko erraldoi baten gainera igo eta motordun ontzi batek atoian eramaten uztea.

11) Kite surfa: helburua da uraren gainazalean desplazatzea ohol baten gainean zutik jarrita; erabiltzailea parapente txiki edo kometa antzeko bati lotzen zaio, eta hori haizearen indarrak bul-tzatzen du.

12) Ski Busa: helburua da uraren gainazalean hainbat tripulatzailer irristatzea ontzi flotagarri batean eserita, beste ontzi motordun batek herrestan eramanda.

13) Busboba: ur lasterreko ibai batetik flotagailu zilindriko handi baten gainean jaisteko jarduera. Flotagailua jaurtigai handi baten modukoa da; beste bi flotagailu txikiago ditu albo banatan itsa-tsita, oinak jartzeko.

14) Arraun-surfa: jarduera honetan arraun bat erabiltzen da uretan zehar desplazatzeko, surf-ohol baten gainean zutik iraunez.

15) Pala-surfa/stand up paddle/paddle surfa: uretan zehar surf-ohol baten gainean desplazatzea pala baten laguntzarekin.

16) Zetazeoak begizatzea: baleak eta beste zetazeo batzuk haien habitat naturalean behatzea.

17) Urpekaritza, urpeko jarduerak, eskafandra-urpekaritza eta snorkela (arnas hodi bidezko urpekaritza): ingurune hiperbarikoan zehar desplazatzea jolaseko edo dibertimendurako helburuarekin.

18) Urpekaritza-bataioa: urpekaritza-bataioa urpekaritzako hastapena eta lehen esperientzia da.

19) Ur-motorretako ibilbideak eta/edo txangoak: ur irekietan edo barrukoetan uretako motorrekin egiten den jarduera, indarrean dagoen araudiak baimentzen duen lekuetan eta segurtasun-arau zorrotzen arabera (seinaleztapena, etab.).

20) Ibaiko eskia: ur bizietatik jaistea eski berezi batzuekin eskia eginez eta pala bikoitzeko arraun baten laguntzaz.

21) Coasteeringa: itsaslabarrak itsasondotik behatzea eta zeharkatzea, oinez, igeri eginez, salto eginez, katuka igoz, katuka jaitsiz, etab., taldearen mailaren eta itsasoaren egoeraren arabera egokiena den progresio-metodoa erabiliz.

2.– AIREKO JARDUERAK

1) Paradescendinga: kometa batekin (parapentearen antzekoa) desplazatzea; motordun ontzi baten trakzioaren bidez altxatzen da eta horrek airean mantentzen du.

2) Globo aerostatikoa: globo bat erabiliz egiten den hegaldi-modalitatea.

3) Delta-hegala: airean zehar desplazatzeko jarduera da, ezaugarri jakin batzuk dituen hegala bat (delta-hegala) erabiltzen da, eta aireratzeko, mendi-magaletatik abiatzen da.

4) Parapentea: airean zehar desplazatzeko jarduera da, ezaugarri jakin batzuk dituen jausgailua erabiltzen da, eta, aireratzeko, mendi-magaletatik abiatzen da.

5) Motorrik gabeko hegaldia: aireko progresio-jarduera, ezaugarri jakin batzuetako aireontzi (belaontzi) bat erabiltzen da, motorrik gabea, eta baliabide mekanikoak erabiltzen ditu aireratzeko.

7) Ultra-arineko hegaldia: aireko progresio-jarduera; ezaugarri jakin batzuetako aireontzi motordun bat erabiltzen du.

8) Parakaidismoa: helburua da hegaldatu den hegazkin, helikoptero, globo edo abioneta batetik jaurtitzea eta lurrera arte jaistea, jausgailu batekin jaitsiera balaztatuz eta zuzenduz.

9) Puentinga: zubi, garabi, aerostato, helikoptero, eraikin edo beste egitura mota batetik nork bere burua jaurtitzea hainbat soka dinamikoren bidez loturik; horrela, jauzilaria airean esekita geratzen da.

10) Elastikoekin jauzi egitea (Benji edo Bungee): leku altu batetik nork bere burua jaurtitzea, goma elastiko batekin lotuta; horrela, jauzilaria hainbat aldiz igo eta jaisten da, eta azkenik, jauzilaria airean esekita geratzen da.

11) Hegaldi motorduna: aireko txango edo ibilbide bat, motordun abioneta bat erabiliz.

3.– MENDIKO ETA ESKALADAKO JARDUERAK, OINEZKO BIDEAK ETA AMILDEGI JAITSIERAK

1) Mendizaletasuna: mendian zehar oinez desplazatzeko jarduera; helburua mendietara igo-tzea da, eta eskalada, alpinismo edo eskiko teknikak eta materialak erabil daitezke, segun eta zer dagokion.

2) Arroila-jaitsiera: jarduera honetan ura duten edo urik ez duten sakanak igotzen edo jaisten dira, mendizaletasunean, eskaladan eta espeleologian erabiltzen diren jaisteko teknikak erabiliz.

3) Izotzetako eskalada: jarduera honen helburua harkaitzezko, elurrezko edo izotzezko hor-mak dituzten mendietan gora joatea da, izotzetan eskalatzeko teknika eta material bereizgarriak erabiliz.

4) Harkaitzean eta rokodromoan eskalada egitea: jarduera honen helburua horma naturaletan eta artifizialetan gora joatea da, harkaitzean eskalatzeko teknika eta material bereizgarriak erabiliz.

5) Mendi-ibilaldiak: espazio naturaletan zehar oinez desplazatzeko jarduera; helburua da seinaleztatutako edo seinaleztatu gabeko bide eta bidezidorrak zeharkatzea.

6) Zeharkaldia edo trekkinga: hainbat egun irauten duen txangoa; eremu menditsuak edo landa-eremuak zeharkatzen dira, eta gaua hainbat tokitan igarotzen.

7) Via ferratak: via ferratak ibilbide bertikalak dira, eta hainbat materialez daude hornituta, hala nola iltzeak, grapak, heldulekuak, eskubandak, kateak, zubi zintzilikariak eta tirolinak, eta, horiei esker, segurtasunez igo daiteke sarbide zaileko eremuetara.

8) Espeleologia: jarduera honetan lur azpiko barrunbeak esploratzen eta zeharkatzen dira, barrunbe horiei dagozkien oztopoak saihestuz, eta espeleologiako teknika eta material bereizgarriak erabiliz.

9) Zeharkaldia: ibilbide luzeko eta ertaineko espedizioa mendiko eskualdeetan barrena; ibilbide horietan aterpeetan edo kanpalekuetan lo egiten da.

10) Ibilketa nordikoa.

11) Orientazio-jarduerak: modalitateak:

- Orientazio-lasterketa: mendian eta beste leku batzuetan egiten diren oinezko lasterketak; haietan, parte-hartzaile bakoitzak ezarri diren kontrol-puntu batzuetatik igaro behar du, iparrratz bat eta mapa bat soilik erabiliz.

- Orientazio-jarduera: orientazio-lasterketaren jolas-egokitzapena.

12) Alpinismoa: kirol-modalitate honetan lur-eremu menditsuak zeharkatzen dira, eskalada-tekni-ken, ingurunean bizirauteko tekniken eta orientazioaren bidez.

13) Coasteringa: kirol-modalitate honetan, ibilbide bat egiten da kostaldean zehar, honako hauek konbinatuz: mendi-ibilaldiak, altuera-jauziak uretara, lurreko leizeen esplorazioa, urpekari-tza, zeharkaldiko eskalada, rappela eta soka-zubia, besteak beste.

14) Slacklinea: modalitate honetan, nylonezko edo poliesterrezko zinta lau baten gainean oinez egiten da, zinta hori bi puntu finkora lotuz eta tenkatuz.

15) Rappela: eskalada-teknika bat da, eta helburua da soka batekin gainazal bertikal edo oker-tuetatik jaitea.

16) Tirolina/Tirolesa/Dosela/Canopya: sistema honen bidez, amildegi baten bi punturen arteko ibilbidea gurutzatu daiteke, puntu horiek lotzen dituen soka baten edo polea bidez.

17) Zubi tibetarra: ibai bat, arroila bat edo igarobide bertikalak zeharkatzeko egitura tradizional bat da. Elkarri lotutako hiru sokaz osatzen da: bi paraleloak, bi eskuetarako, eta behean beste bat, oinetarako.

18) Tximu-zubia: ibai bat, arroila bat edo igarobide bertikalak zeharkatzeko egitura tradizional bat da. Bi soka paraleloekin osatzen da: goikoa eskuetarako eta behekoa oinetarako.

19) Elurretako mendi-ibilaldia: ibiltaria, oinetakoei erraketa berezi batzuk finkatu ondoren (elur-erraketak), lurra hondoratu gabe ibiliko da gainazal izoztuen gainean.

20) Biziraupena: kirol-jarduera honetan hainbat diziplinako teknika (orientazioa, eskalada, etab.) eta ingurune-ko teknika (botanika, meteorologia) bateratzen dira, naturan moldatu ahal iza-teko, naturaren baliabideak ezagutzeko eta aprobetxatzeko, eta arriskuak saihesteko.

4.– BIZIKLETA- ETA HIPIKA-JARDUERAK

1) Zaldi-txangoak eta -ibilaldiak, aldeztu aurretik zehaztutako ibilbide bati jarraituz.

2) Mendiko bizikleta (Mountain Bike): progresio-txirrindularitzako espezialitate bat da; naturagu-neak zeharkatzen dira, mendiko txirrindularitzako teknika eta makina bereizgarriak erabiliz.

3) Zikloturismoa: egun bateko edo gehiagoko ibilbideak edo bidaiak egiten dira, bizikletaz, erre-pidez edo bideak zeharkatuz.

5.– JARDUERAK IBILGAILU MOTORDUNEKIN

1) Quadak: jarduera hau zirkuitu itxietan edo baimendutako ibilbideetan egiten da ibilgailu bere-ziekin; hau da, lau gurpileko lur orotako eta gehienez ere bi eserlekuko ibilgailua (motozikletaren aldaera bat da).

2) Lur orotako ibilgailu motorduna edo 4x4: jarduera honetan ibilbideak egiten dira zirkuitu itxie-tan edo baimendutako ibilbideetan lur orotako ibilgailuekin.

3) Buggieak: hondarrerako lur orotako ibilgailu arina.

4) Ziklo-kros, triala, enduroa.

5) Kartinga: automobilismo-diziplina bat da; kartodromo izeneko zirkuituen gainean praktikatzenda kart izeneko ibilgailuekin: 600 eta 1700 metro bitarteko luzera eta 8 eta 15 metro arteko zaba- lera izaten dute.

6) Segwaya: garraiorako ibilgailu arin girooskopiko, elektriko eta bi gurpilekoa; bi gurpilak albo banatan kokatzen dira, eta ordenagailuz kontrolatutako

auto-balantza du.6.– BESTE JARDUERA BATZUK

1) Jarduera anitzeko zirkuitua: hainbat jarduera konbinatzen dira hainbat tokitan, hala nola zubi esekiak, tirolinak, eskubandak, zubi tibetarrak, etab.

2) Arku-tiroa: jarduera honetan geziak jaurtitzen dira arku baten laguntzarekin, eta helburua da puntu edo leku finko batean jotzea; naturagune batean garatzen da.

3) Paintballa eta antzekoak: jarduera hau aire zabalean egiten da; bi taldek pintura-bolekin borrokatzen dute helburu bat lortzeko.

Modalitateak:

- Paintballa (tiro egitea pintura-bolarekin).
- Airsofta (tiro egitea plastikozko bolarekin).

4) Herri-kirolak eta pilota: jarduera hauen bidez, euskal kultura eta euskal tradizioak –herri-kirolak eta euskal pilota– ezagutu daitezke. Erakusketa-jarduera bat izan daiteke, non turistek parte hartzen baitute, edo, bestela, parte hartzeko jarduera bat izan daiteke, zeinean taldeak beren artean lehiatzen baitira pilota-joko edo herri-kirol formatuan, taldearen arabera.

5) Ginkanak: team building jarduerak. Batez ere talde baten sentimendua indartzeko, marka bat bultzatzeko edo pizgarri baten moduan erabiltzen diren jarduerak. Taldeen arteko lehiaketak izaten dira eta hainbat motatako probak egiten dira: oreka, indarra, asmamena, koordinazioa, talde-lana, etab.